

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Gazako giza larrialdietarako 26.000 euroko laguntzen deialdia egin du

Inguruko esperientziadun GGKE-ek abuztuaren 28ra arte aurkeztu ahal izango dituzte ekimenak

Jueves, 21 de agosto de 2014

Nafarroako Gobernuak 26.286 euroko [laguntzen deialdia](#) argitaratu du, Gazako palestinarren giza larrialdietarako ekintzak gauzatzeko.

[Ostegun honetan](#), abuztuak 21, Nafarroako Aldizkari Ofizialean jasotakoaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuaren asmoa oinarritzko premiei erantzuten, bizirautea bermatzen eta inguru horretako gatazka jasaten ari direnen sufrimendua arintzen laguntzeko proiektuak finantzatzea da.

Deialdiaren oinarrien arabera, finantzatzen diren jardueren bidez osasun-laguntza emateko ondasunak edo zerbitzuak, elikagaiak, ura eta saneamendua eman ahal izango dira, zuzenean, presako gisa eta berehala.

Gogorarazi beharrekoa da, giza larrialditzat jo duela Nazio Batuen Erakundeak Gazako zerrendako palestinarrak bizi duten egoera. Hori dela-eta, nazioartearen laguntza eskatu du, berehalako laguntza emateko eta kaltetutako edo txikitutako eraikinak lehengoratzeko.

Abuztuaren 28ra arteko epea

Laguntza horiek eskuratu nahi dituzten garapenerako gobernu kanpoko erakundeek (GGKE) 2014ko abuztuaren 28ra arte entregatu ahal izango dituzte proiektuak, Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusian (Abejeras kalea, 1, edo González Tablas kalea, 7, Iruña), [Internet bidez](#) edo Nafarroako Gobernuaren beste edozein [erregistrotan](#) zein [30/1992 Legean](#) ezarritako tokietan.

GGKE horiek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentzian erregistratuta egon beharko dira, sozietatearen egoitza edo ordezkaritza iraunkor bat Nafarroan izan beharko dute eta nazioarteko lankidetzak-ekintzetan edo Gazan giza eta larrialdi-laguntza ematen esperientzia espezifikoa dutela egiaztatu beharko dute, besteak beste.

Bestalde, proiektuak aurtengo urtean gauzatu beharko dira, eta zeharkako gastuak ezingo dira izan esku-hartze osoaren % 10 baino gehiagokoak. Honako hauek finantzatuko dira: materialak eta hornigaiak; langileen gastuak, bertakoenak zein atzerrian daudenenak, eta esku-hartzearekin berariaz lotuta eta identifikatuta dauden bidaiak, ostatua eta dietak.